

[www.lupak.org](http://www.lupak.org)

Koadernoa

12

# Gipuzkoako emakume politikariak

Nola bizi dute  
esperientzia politikoa?

2026ko  
ekaina

LU<sup>P</sup>AK

# Politikariak emakume Gibonzkoko

esperientzia politikoa  
Nola bizi dute



LUPAK jarduera politikoa ikertzeko behatokia da. Politikariek beren jarduerari buruz zer iritzi duten interesatzen zaigu, baita herritarrek politikaren gainean egiten dituzten galderei buruz zer iritzi duten ere.

Ale hau LUPAKen ikerketetatik abiatuta egindako koaderno-serie baten parte da.

# Koadernoaren 7 puntuak

**#1.**  
Sarrera **06**

---

**#2.**  
Datuen jatorria **09**

---

**#3.**  
Testuinguru orokorra **10**

---

**#4.**  
Inkestatutako emakume politikarien profila **12**

---

**#5.**  
Inkestatutako emakume politikarien ibilbidea **14**

---

**#6.**  
Esperientziak jarduera politikoan **16**

---

**#7.**  
Hiru ideia nagusi **25**

---



# # 1. Sarrera

Ordezkaritza politikoko espazioetan emakumeen berdintasunezko sarbidea justizia sozialeko kontua da, eta, ildo horretan, behar-beharrezkoa da; hala ere, ez da nahikoa parlamentuetan eta gobernuetan haien parte-hartze eraginkorra bermatzeko, ezta haien beharrak defendatzeko ere. Gizarte aldagetak dinamikak eta legegintza-garapenak diskriminazio positiboko mekanismoak sustatu dituzte estatu, autonomia-erkidego zein foru-mailan; hain zuzen, politikan genero-arrakalaren murrizketan aurrerapausoak lortzeko beharrezkoak diren tresna zuzentzaileak dira horiek. Gipuzkoan, erakundeen osaerak bilakaera positiboa izan du eta zifra parekideetara iritsi da, non emakumeek Batzar Nagusietako eserlekuen % 47 eta udal bilkuretako zinegotzigoetako % 47,7 betetzen dituzten.

Aurrerapen horiek lortuta ere, botere- eta erabaki-espazio jakin batzuetan jarraitzen dute emakumeen parte-hartzea zailtzen duten egiturazko oztopoak eta mugak egoten. Hainbat ikerketek erakusten dute irudian gero eta emakume gehiago agertzen badira ere (errepresentazio deskriptiboa), haien presentziak espazio horietan ez duela automatikoki bermatzen gaitasunak zein baliabideak dituztela emakumeek politika publikoetan dituzten interesak gauzatzeko (errepresentazio erreala) eta baldintza berdinetan parte hartzea ahalbidetuko duten ekimenak antolatu, aurkeztu zein onartzeko. Hala, Gipuzkoako udalbatzek osaera paritarioa izan arren, Gipuzkoako hiru pertsonatik bat soilik, gutxi gorabehera, emakume batek gobernatutako udalerri batean bizi da. Kontraste horrek erakusten du hauteskunde-legeek muga praktikoak topatzen dituztela.

Oztopo horiek ulertzeko, ezinbestekoa da zifretatik haratago begiratzea eta protagonistei beraiei ahotsa ematea. Emakumeei espazio politikoetan duten bizipenaz galdetzea garrantzitsua da, mendeetan zehar tradizionalak gizonak betetako espazio batean emakumeen esperientzia ikusaraztea ahalbidetzen duelako. Gainera, adierazle objektiboek bistaratzen ez dituzten eguneroko esperientziari eta esperientzia pertsonalari loturiko alderdiak agerian jartzen ditu. Haiek bizitako esperientziak zuzenean erakusten du politikan aritzeak dakartzan ondorioak.

Berdintasunean oinarritutako tokiko gobernantza finkatzeko, beharrezkoa da errepresentazio formalaren neurriak gainditzea eta lurraldeko kultura politikoa sakonki eraldatzeko bidean aurrera egitea. Koaderno honek galdera hauei erantzun nahi die: Nola bizi izan dute emakumeek politikarako sarrera? Nola eragiten du politikak beren bizitzan? Eta familiako zein gizarte harremanetan? Nola bizi eta hautematen dute emakumeek jarduera politikoa?

## # 2. Datuen jatorria

LUPAKek ikerketa bat gauzatu du eta Gipuzkoako 25 eta 70 urte bitarteko 125 emakume politikariri lurraldeko eremu politikoetan izan duten bizipenaren inguruan galdetuz

### Parte-hartzaileak

**125**

Emakume politikari

### Adin tartearen arabera banaketa

**40**

25-44 urte

**42**

45-52 urte

**43**

52 urtetik gorakoak

### Karguaren arabera banaketa

**95**

Zinegotziak

**30**

Alkateak eta  
goi-kargurdunak

### Lurralde-esparrua

**Gipuzkoa**

Gainera, koaderno hau lantzeko, pertsona eta ikerketa talde adituetatik datozen kanpoko datu-iturrietan ere oinarritu gara.

### 3. Testuinguru orokorra

#### 3. Testuinguru orokorra

**Zein da genero-berdintasunaren egoera Europan?**



Europako **14** herrialdek dute emakume bat botere exekutiboaren buru<sup>1</sup>

Europako udaletxeen **% 27,4**k dute emakume bat buru<sup>2</sup>

**Eta Europar Batasunean eta estatu kideetan?**

Emakume eurodiputatuen **% 85**ak bere agintaldian zehar indarkeria psikologikoa jasan duela adierazi du<sup>2</sup>

Gobernuko buruzagitzen **% 15**ean emakume bat dago karguan<sup>3</sup>

Tokiko batzarren eta parlamentuen aulkien **% 34,5**ean emakume bat dago<sup>3</sup>

#### Iturriak:

<sup>1</sup> Council of European Municipalities and Regions (CEMR). (2024). Women in Politics: Local and European Trends. Brussels: CEMR.

<sup>2</sup> Inter-Parliamentary Union & Parliamentary Assembly of the Council of Europe. (2018). Sexism, harassment and violence against women in parliaments in Europe. Geneva: IPU.

<sup>3</sup> European Parliamentary Research Service. (2026). Women in politics in the EU: State of play. European Parliament.

## 4. Inkestatutako emakume politikarien profila<sup>4</sup>

### Iturria:

<sup>4</sup> LUPAK. (2026). Gipuzkoako emakumeen ordezkaritza politikoari buruzko ikerketa.

### 4. Inkestatutako emakume politikarien profila

Batez besteko  
adina

Guztira

**48** urte

Gutxieneko  
adina

Guztira

**25** urte

Gehiengo adina

Guztira

**70** urte



Burututako ikasketa-maila altuena

Graduondoko  
ikasketak

**%40**

Goi hezkuntza

**%33**

Doktorego  
ikasketak

**%3**

Erdi- edo goi-  
mailako LH

**%21**

Lehen edo  
bigarren hezkuntza

**%2**

Formakuntzako jakintza-adar nagusia

Gizarte-  
zientziak

**%69**

Osasun-  
zientziak

**%8**

Giza-zientziak

**%8**

Ingeniaritza  
eta Teknologia

**%7**

Natur-  
zientziak

**%7**

Erantzukizun politiko handieneko kargua  
lortutako unean zuten batez besteko adina

Guztira

**42** urte

## 5. Inkestatutako emakume politikarien ibilbidea<sup>4</sup>

### Iturria:

<sup>4</sup> LUPAK. (2026). Gipuzkoako emakumeen ordezkaritza politikoari buruzko ikerketa.

### 5. Inkestatutako emakume politikarien ibilbidea

Jarduera politikoari eskainitako batez besteko urteak

Guztira

**8** urte

Erabateko arduraldia politikan

Bai

**%56**

Ez

**%44**

Politikara sartzeko erakundeak

Alderdi  
politikoak

**%56**

Hautagai-  
zerrendak

**%25**

Independiente  
gisa

**%12**

Herri-  
mugimenduak **15**

**%7**

Jarduten duten edo jardun duten lurralde eremuak

Udal  
maila

**%96**

Probintzia  
maila

**%20**

Autonomia  
maila

**%12**

Estatu  
maila

**%2**

Alderdi politikoaren barruan kargu organikoak dituzte  
edo izan dituzte

Ez

**%75**

Bai

**%25**


## 6. Esperientziak jarduera politikoan<sup>4</sup>

### Iturria:

<sup>4</sup> LUPAK. (2026). Gipuzkoako emakumeen ordezkaritza politikoari buruzko ikerketa.

### 6. Esperientziak jarduera politikoan

#### Zein faktorek eragin zieten politikan sartzeko erabakian?



17

#### Nola kudeatzen da denbora jarduera politikoan zehar?

Zaintzari eta kontziliazioari eskainitako eguneroko orduak



## 6. Esperientziak jardura politikoan

Atsedenerako eguneroko orduak

4 eta 6 ordu  
artean

**%32**

7 ordu

**%42**

8 ordu

**%23**

9 eta 10 ordu  
artean

**%3**

Bileren, saioen eta ekitaldien ordutegiak norberaren beharren eta familia-kontziliazioaren arabera doitzen dira.

Hauteskunde-  
erakundean

**%53**

Alderdian edo  
elkartean

**%49**

Politikan jarduteak etengabeko presioa eta lanaldi luzeak jasatea dakarrela uste dute, baita asteburuetan ere

Guztira

**%81**

## 6. Esperientziak jardura politikoan

**Oztopo ohikoenak jardura  
politikoan aritzerakoan**



**% 80** k familiaren eta lan politikoaren arteko kontziliazio falta nabarmentzen du

**% 70** ak dio bere buruarengan konfiantza falta sentitu duela

**% 65** ak kultura nagusi batekin egin du topo gizartean emakumeei esleitutako rolari dagokionez

**% 61** ak nabaritzen du erakundeak "gizonen klub" baten menpe daudela

**% 57** k baliabide edo informazio falta sentitu du

## 6. Esperientziak jarduera politikoan

### Espazio politikoaren zer pertzepzio dute?



**% 66** ren ustez, sistema instituzionalak eta bere dinamikek errepresentazio eraginkorra izatea eragozten diete

**% 45** i iruditzen zaio emakumeek gizonek baino arrisku handiagoa dutela espazio hierarkiko eta gatazkatsu batean

**% 40** k uste du politika gero eta parte-hartzaileagoa eta barneratzaileagoa dela

### Politikan jarduteak beren iritziz dakartzan ondorioak

**% 73** k bizitza pertsonalean eragina eta deskonektatzeko zailtasunak nabarmentzen ditu

**% 72** k bizitza pertsonalean eta familiarrean intimitatearen eta pribatutasunaren galera identifikatzen du

**% 64** k jarduera estresarekin, nekearekin edo osasun mentalaren arriaskuarekin lotzen du

**% 33** k aurretiko lanetara itzultzeko zailtasuna adierazten du

**% 30** ak gizartearen gaitzespena bere politikari lanaren ondorioztat du

## 6. Esperientziak jarduera politikoan

### Nola baloratzen dute beren ibilbide politikoan izandako esperientzia?



**% 83** pozik dago bizitako esperientziarekin

### Zer pertzepzio dute beren ordezkaritzari eta genero-berdintasunari buruz?

**% 96** k defendatzen du gizonek eta emakumeek rol berdina eduki beharko luketela gobernuaren zuzendaritzan

**% 90** ak dio emakumeek beste iritzi, ikuspegi eta gaitasun batzuk ekartzen dizkiotela politikari

**% 66** k dio parlamentuan zenbat eta emakume gehiago egon, orduan eta eragin handiagoa izango dutela

**% 54** aren ustez, emakume parlamentariak emakumeak gizartean dituzten interesak ordezkatzeko erantzukizuna dute

**% 54** k uste du politika bai emakumeek bai gizonek definitzen dutela

**% 23** k partekatzen du gizon parlamentariak gizonek gizartean dituzten interesak ordezkatzeko erantzukizuna dutela


## 6. Esperientziak jardura politikoan

### Generoagatiko indarkeria politikoaren ekintzarik jasan dute?




Emakume politikarien **% 82**k adierazi du noizbait indarkeria politiko motaren bat jasan duela

#### Jasandako ekintza motak



## 6. Esperientziak jardura politikoan

### Nork burutu ditu generoagatiko indarkeria politikoaren ekintzak?



## # 7. Hiru ideia nagusi

1

Gipuzkoako emakume politikarien kualifikazio eta konpromiso handiak kontrastatu egiten du jasaten duten etengabeko presioarekin eta kontziliazio-zailtasunekin.

2

Gipuzkoako emakume politikariek uste dute egiturazko oztopoak eta dinamika instituzional baztertzaileak daudela oraindik, nahiz eta oso pozik dauden bizitako esperientziarekin.

3

Hitz egiteko eragozpena eta beren gaitasuna zalantzan jartzea dira Gipuzkoan generoagatiko indarkeria politikoaren adierazle nagusiak.

# Oharrak

12

Koagertza

2020ko  
ekaina

Gipuzkoako emakume politikariak  
Nola bizi dute esperientzia politikoa?

www.sinnergiak.org

Innovation.  
Social  
Sinnergiak

www.lupak.org



---

2026ko  
ekaina

---

**Gipuzkoako emakume politikariak**

Nola bizi dute esperientzia politikoa?

---

[www.lupak.org](http://www.lupak.org)

[www.sinnergiak.org](http://www.sinnergiak.org)



**Sinnergiak**  
**Social**  
**Innovation.**